




Hizkuntzen erabilera eta ikasketa hizkuntza gutxituekin bizikidetzan: inklusiorako mugarriak



Uzt. 16 2024

Kod. H14-24

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 16 2024

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

10 ordu

Webgunea

<https://kideon.eus/>

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Proposamen honen helburu nagusia mugaz bi aldetako hainbat erakundetan hizkuntza eta kultura praktikak oinarri gisa hartuta inklusiorako mugarrak sustatzen ari diren esperientziak eta proposamenak ezagutaraztea da. Proposamen hauek mugaz gaindiko eremuak aizpatzeko erraminta izan daitezke eta baita mugaz gaindiko ikerketa proiektuak abiatzeko ere, hizkuntza eta kultura arteko zubiak egiteko, hizkuntza gutxitu baten testuinguruan.

Hizkuntza aniztasuna inklusiorako gako bezala ulertzea, aberasgarria izan daiteke, hizkuntza eta kultur loturak sustatuz eta hizkuntzekiko errespetua sustatuz. Hizkuntza normalkuntzarako bidean, kasu honetan euskara, bidea egiteko duen mugaz gaindiko lurralde batean, garrantzitsua da elkartruckerako espazioak sortzea, aniztasun testuinguru batean ezagutzeko, ze harreman motak sortu behar diren hizkuntzen aniztasuna errespetatuz, euskarak bere normakuntza prozesuan aurrerapausoak ematen jarraitu dezan.

Halaber, hizkuntza gutxituekin bizikidetzan hizkuntzen eta kulturen erabileran, haur eta nerabe, eta gazteek duten papera berebiziko garrantzia du. Hizkuntzen erabilera bultzatu ahal izateko, ezinbestekoa da, parte-hartzeko espazioak eta komunikatzeko estrategiak sustatzea, motibazioa eta jarrera lantzearekin bat. Era berean, ikasketa esperientzia hauek ebaluatzea eta ikertzea ere ezinbestekoa da, baina haur eta nerabeei egokitutako tekniken bidez. Beraz, aztergai izango dugu baita bideratzen ditugun ikerketa, esku-hartze eta proiektuetan inklusio ikuspegia nola txerta dezakegun eta baita prozesu hauetan partehartzaileak protagonista nola bihurtu. Ikastaro hontean, hortaz, begirada jarriko dugu prozesu hoentan protagonisteei ahotsa emateko eta hizkuntza ikaskuntza eta erabilera sustatzeko ikuspegi inklusibo bataetik landu beharreko alderdiei.

Laburtuz, hizkuntzak erdigunean dituzten ikerkuntza eta hezkuntza esperientziak aurkeztuko dira, testuinguru honetan gauzatzen ari diren erronkak eta jardunbide egokiak zeintzuk diren aztertuz. Halaber, mugaz gaindiko hezkuntza eta ikerkuntza proposamen berrientzako sorkuntza laborategi ere izan nahiko genuke.

Uda Ikastaro hau hizkuntzen irakaskuntzan hau zein helduekin lan egiten duten edo ikertzen duten profesional guztientzat pentsatuta dago, eskoletatik unibertsitatetara eragile sozialetatik eta udal arduradunetatik pasaz. Hau da, hizkuntzen balio hezitzailea mugaz gaindi lantzen duten edo landu nahiko luketen banako eta erakunde guztientzat.

Helburuak

Hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntza parte-hartze aktiboan oinarrituta mugaz bi aldeetan sustatu duten esperientziak ezagutzea, beraien mugaz gaindiko potentzialtasuna aztertuz.

Hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntza inklusiotik bultzatzeko tresnak eta baliabideak eskaintzea.

Ikerketetan, esku-hartzeetan eta burutzen ditugun praktiketan hizkuntz aniztasunaren ikuspegia txertatzeko bideak ezagutzea, bereziki hizkuntza gutxituetako testuinguruetan.

Hizkuntzen ikaskuntzak eta erabilerak mugaz gaindiko harremanak lantzeko dituen erronkak ezagutzea.

Lankidetzak



Programa

2024-07-16

09:00 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Urtzi Etxeberria Otaegi IKER - CNRS-ko zuzendaria. Bordele-Montaigne Unibertsitatearen eta Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatearen (UPPA) Nahia Idoiaga Mondragon UPV/EHU - Gradu, Graduondoko eta Gradu Amaierako Lanak Koordinatzeko Dekanordea Bilboko Hezkuntza Fakultatea (UPV/EHU) Idoia Legorburu Fernandez UPV/EHU - Didaktika eta Eskola Antolakuntza departamentuko idazkaria Bilboko Hezkuntza Fakultatea
09:30 - 10:00	“Heldu euskarari: ahozko adierazpenaren aukerak eta erronkak murgiltze ereduko bigarren hezkuntzan” Amaia Rodriguez Aguirre IKER Euskara eta euskal testuen ikerketa gunea - Ikerlaria. Bordele-Montaigne Unibertsitatearen eta Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatearen (UPPA)
10:00 - 10:30	“Hizkuntzak esperientzia positiboz ikasiak: EU+Maps Proiektua/ L'apprentissage des langues par l'expérience positive : projet EU+Maps” Soha El Jammal Pistes Solidaires - Proiektu arduraduna Nahia Idoiaga Mondragon UPV/EHU - Gradu, Graduondoko eta Gradu Amaierako Lanak Koordinatzeko Dekanordea Bilboko Hezkuntza Fakultatea
10:30 - 11:00	“Animazioa euskaraz: Bernat Etxepare Lizeoa saila eta Malégarie eskola publikoaren elkarlan proiektua” Mari Lagan Bernat Etxepare Lizeoa - Bernat Etxepare Lizeoko irakaslea
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:00	“Euskara, inklusiorako bidea eta helburua” Egoitz Urrutikoetxea Seaska - Seaskako Hezkuntza zuzendaria
12:00 - 13:00	Mahai ingurua: “Erronka berriak hizkuntzen ikaskuntza eta iraskuntzan ingurune inklusiboetarako” Idoia Legorburu Fernandez Bilboko Hezkuntza Fakultatea (UPV/EHU) - Didaktika eta Eskola Antolakuntza departamentuko idazkaria Amaia Rodriguez Aguirre IKER Euskara eta euskal testuen ikerketa gunea - Ikerlaria. Bordele-Montaigne Unibertsitatearen eta Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatearen (UPPA) Egoitz Urrutikoetxea Seaska - Seaskako Hezkuntza zuzendaria Mari Lagan Bernat Etxepare Lizeoa - Bernat Etxepare Lizeoko irakaslea
13:00 - 14:00	Atsedena
14:00 - 14:30	“Hizkuntza eta kulturak eskola testuinguruan” Naiara Berasategi Sancho UPV/EHU - Didaktika eta Eskola Antolakuntza departamentuko Zuzendaria Bilboko Hezkuntza Fakultatea Amaia Eiguren Munitis UPV/EHU - Nazioarteko harremanetarako eta mugikortasuneko Dekanordea Bilboko Hezkuntza Fakultatea
14:30 - 15:00	“Hizkuntza gutxituak aztertzeako sortu behar diren tresnak “

15:00 - 15:30	“Migrazioa eta euskara: hezkuntza-sistema gizartearen isla da?” Asier Romero Andonegui UPV/EHU - Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika saila. Bilboko Hezkuntza Fakultatea Israel Alonso Sáez UPV/EHU - Gizarte Hezkuntzako Koordinatzailea Bilboko Hezkuntza Fakultatea
15:30 - 16:15	Mahai ingurua: “Hizkuntza gutxituen ikerketa. Oinarrizko gakoak” Israel Alonso Sáez UPV/EHU - Gizarte Hezkuntzako Koordinatzailea Bilboko Hezkuntza Fakultatea Naiara Berasategi Sancho UPV/EHU) - Didaktika eta Eskola Antolakuntza departamentuko Zuzendaria Bilboko Hezkuntza Fakultatea Amaia Eiguren Munitis UPV/EHU - Nazioarteko harremanetarako eta mugikortasuneko Dekanordea Bilboko Hezkuntza Fakultatea Marie Pourquoié Bidegain IKER Euskara eta euskal testuen ikerketa gunea - Ikerlaria. Bordele-Montaigne Unibertsitatearen eta Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatearen (UPPA) Asier Romero Andonegui UPV/EHU - Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika saila. Bilboko Hezkuntza Fakultatea
16:15 - 16:30	Sintesia

Zuzendaritza



Nahia Idoiaga Mondragon

UPV/EHU

Psikologian (2011) eta Psikopedagogian (2011) lizentziatua eta UPV/EHUn Psikologian doktorea (2016) da nazioarteko aipamenarekin. Ikerketa arloan KideOn ikerketa taldeko kide da. Hezkuntzaren psikologian eta psikologia sozialean errotuaz inklusio sozio hezitzailea, hezkuntza, feminismoa eta osasunaren inguruko ikerketak burutu ditu eta baita berauei buruzko artikulak zientifikoak publikatu inpaktuzko aldizkarietan ere. Gainera zaurgarritasun egoeran dauden gazteen inklusioa lantzen duten hainbat proiektutako partaidea da, gehienak Europarrak. Irakaskuntzari dagokionez Bilakaera eta Hezkuntzaren Psikologia sailean irakasle agregatua da. Eskolak Gizarte Hezkuntza eta Haur Hezkuntzako graduatan ematen ditu Bilboko Hezkuntza Fakultatean. Gainera UPV/EHU-ko Psikologia eta Psikodidaktika doktoretza programetako tesiak zuzentzen ditu. Bestalde gradu, graduondoko eta gradu amaierako lanen dekanordea ere bada Bilboko Hezkuntza Fakultatean.



Idoia Legorburu Fernandez

Euskal herriko unibertsitatea

Irakasleak



Israel Alonso Sáez

Universidad Del País Vasco

Gizarte Hezitzailea, Pedagogoa, Pedagogian Doktorea (2015) eta Didaktika eta Eskola Antolakuntza saileko irakaslea. Esku-hartze sozio hezitzaileko hainbat proiektutan 15 urte baino gehiagoko esperientzia du eskuhartzean, formazioan ikerketan eta koordinazioan. Ikertzaile gisa MINECO-ko I+D+I eta Europar Erasmus+ proiektuetan parte hartu du, ikertzaile nagusi ere izanik. Horrez gain, Co-IP eta ikertzaile gisa egindako hainbat ikerketetan parte hartu du, Gizarte Hezkuntza gradua eta gizarte erakundeen arteko lankidetzan, titulazioaren Kontseilu/Behatokiaren bitartez. IkasGura: hezkuntza aldaketa unibertsitatean (2014-2017) taldeko kide izan zen eta 2017tik ona KideOn taldeko kide da. Gizarte Hezkuntza Graduako koordinatzailea eta orain Koordinazioaren, Titulazioen Hobekuntzaren eta Graduondoko Ikasketen Arloko Dekanordea ere izan da.



Naiara Berasategi Sancho

Universidad del País Vasco

Lehen Hezkuntzako graduatua, Heziketa Berezian irakaslea, Soziologoa, Politologoa eta UPV/EHU-ko nazioarteko aipamenarekiko Doktorea. Irakasle atxikia da eta 2007tik Didaktika eta Eskola Antolakuntza sailean lan egiten du. Irakaskuntza eta ikerketa esperientzia du Euskal Herriko Unibertsitatean Gizarte Hezkuntzarekin eta inklusioarekin lotutako eremuetan, zehazki, etorkinekin, gazteriarekin, haurrekin, emakumeekin, pertsona zaharrekin eta heziketa-behar bereziekiko pertsonekin lan egin du. Aniztasun linguistiko eta kulturalarekin erlazionatutako gaiak ere jorratu ditu. Gainera, hainbat berrikuntza proiektutan, MINECOren I+G+B proiektuetan, Erasmus + ikerkuntza-proiektu europarretan eta Gizarte-Unibertsitatea proiektuetan parte hartu du ikertzaile gisa, haietako batzuetan IP-kide izanik. Gainera irakasle bisitari bezala egonaldiak egin ditu University of Reno-Nevada, University of Malta eta University College Dublín.



Amaia Eiguren Munitis

Bilboko Hezkuntza Fakultatean Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saileko irakaslea (Leioa, UPV/EHU). Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) Doktorea da eta baita Gizarte Langintzan diplomatua (2015), Irakaslea Lehen Mailako Heziketa Espezializazioarekin (2013) eta Gizarte Hezkuntzan Graduatua (2017). Bere ikerketa arloa belaunaldi arteko harremanak dira nagusiki baita haur eta helduen ongizatea ere. Gizarte Hezitzaile bezala esperientzia luzea kolektibo desberdinekin, gehien bat zaurgarritasun eta babesgabetasun egoeran dauden haurrekin.



Soha El Jammal



Urtzi Etxeberria Otaegi

CNRS-IKER



Nahia Idoiaga Mondragon

UPV/EHU

Psikologian (2011) eta Psikopedagogian (2011) lizentziatua eta UPV/EHUn Psikologian doktorea (2016) da nazioarteko aipamenarekin. Ikerketa arloan KideOn ikerketa taldeko kide da. Hezkuntzaren psikologian eta psikologia sozialean errotuaz inklusio sozio hezitzailea, hezkuntza, feminismoa eta osasunaren inguruko ikerketak burutu ditu eta baita berauei buruzko artikulu zientifikoak publikatu inpaktuzko aldizkarietan ere. Gainera zaurgarritasun egoeran dauden gazteen inklusioa lantzen duten hainbat proiektutako partaidea da, gehienak Europarrak. Irakaskuntzari dagokionez Bilakaera eta Hezkuntzaren Psikologia sailean irakasle agregatua da. Eskolak Gizarte Hezkuntza eta Haur Hezkuntzako graduatan ematen ditu Bilboko Hezkuntza Fakultatean. Gainera UPV/EHU-ko Psikologia eta Psikodidaktika doktoretza programetako tesiak zuzentzen ditu. Bestalde gradu, graduondoko eta gradu amaierako lanen dekanordea ere bada Bilboko Hezkuntza Fakultatean.



Mari Lagan



Idoia Legorburu Fernandez

Euskal herriko unibertsitatea



Marie Pourquié Bidegain

IKER

Neuropsikohizkuntzalaria da. Euskal Filologiako (Baionan eta Gasteizen) eta Hizkuntzaren Zientzien lizentziatura eta Masterra (Parisen) egin zituen. Gero, neuropsikohizkuntzalaritzan eta afasiologian espezializatu zen, ikerketa-masterra eta doktoretza eginda Le Mirail Unibertsitatean (Tolosa, Frantzia, 2011an). Ondotik, doktoretza-ondoko egonaldia egin zuen Montrealeko ortofonia-eskolan, Donostiako BCBL eta Baionako IKER ikerketa-zentroetan. Hizkuntzalaritza klinikoan eta psikohizkuntzalaritza aplikatuan dihardu euskaldun eta eleanizdunengan hizkuntza arazoak hautemateko tresnak garatzen Euskal Herriko, Europako eta Europaz kanpoko diziplinarteko taldeetan.



Amaia Rodriguez Aguirre

UBM-IKER-EHU



Asier Romero Andonegui

UPV/EHU

Hispaniar filologian lizentziaduna (1997) eta doktorea (2005) Deustuko Unibertsitatean. UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultatearen irakaslea 2006tik. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako zuzendariordea (2011-2013); Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikaren sailako koordinatzailea (2016-2018). Bilboko Hezkuntza Fakultateko dekanoa, 2018az geroztik. EUDIA ikerketa-taldea zuzentzen du, talde egonkorra aitortua euskal unibertsitate sisteman, 1 doktorego tesiaren zuzendari izan da. Gainera, 34 GRAL eta 17 MALeko zuzendu ditut. Irakasle bisitari izan da Central Unibertsitatean (Txilen). 8 ikerketa proiektuan aritu da, horietatik 2etan ikertzaile nagusi gisa. Egilekide argitalpen ugarian: 75 artikulua zientifiko, 8 liburu eta 18 liburu kapitulu. 50 ekarpen inguru egin ditu estatuko eta nazioarteko biltzarretan. CNEAIk aitortutako 2 (ikerkuntza) eta 1 (transferentzia) seiurteko ditu. Bikain ziurtagiria DOCENTIAZ jaso du.



Egoitz Urrutikoetxea

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-07-17 ARTE
Mugaz Gaindiko Uda Ikastaroak	0 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2024-07-17 ARTE
Mugaz Gaindiko Uda Ikastaroak	0 EUR

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

3 Av. Jean Darrigrand, 64100 Bayonne, Francia.

Akitania